

KONTROL MOZIOA

Festa eta ekitaldietarako baimena dela eta

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udaltzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du, Udaltzatan azter dadin. Mozioa 2023ko uztailaren 17an Gune Publikoen Batzordean aztertutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Egun, Donostiako edozein eragile, jai batzorde edo bizilagun elkartek festa edo ekitaldi bat antolatu nahi badu haren auzoan, baimen berezi bat bete behar du Gune Publikoen atalean. Azken urteetan bete behar den baimenaren baldintzak, alde batetik, zaildu egin dira, aurkeztu beharreko baimen eta inprimakiei dagokionez, eta bestetik, baldintzak zorrotzu egin dira.

Hori ez bakarrik, eta azkenekoz jakin dugu, festa eta ekitaldietarako baimenaren jakinarazpenean ohar berri bat gehitu duela Gune Publikoen atalak, eta ohar horrek honela dio hitzez hitz:

“ Ordezkaritza honen irizpidea jarraituz, 2024tik aurrera ez dira Udal festa egutegiaz kanpo dauden bazkari popularrak bide publikoan baimenduko”.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Horri buruz interpelatu genuen Gune Publikoetako zinegotzi-ordezkaría eta hark adierazi zigun “erabaki teknikoa” izan zela; azkenaldian baimen-eskaera ugari jasotzen ari direla Gune Publikoen atalean eta horiei erantzun ezinik, horiek mugatzeko erabakia hartu dela.

EH Bilduren ustez, hori ezin da arrazoa izan halako erabaki bat hartzeko. Baimen-eskaera ugariei ezin zaie erantzun ekitaldiak mugatuta edo ez baimenduta. Ez da bidezkoa gure auzoetako ekitaldiak eta bazkari herrikoiak debekatzea, eta hori “erabaki tekniko” baten ondorio dela esatea.

Espazio publikoa herritar guztiona da eta deialdi bakoitzari dagozkion baimenak alde aurretik eskatuta, ez dugu ulertzen, ez onartzen, debekua ezarri eta irizpideetan aldaketak egiteko hartu den erabakia.

Festa egutegiaz kanpo ugariak eta askotarikoak dira espazio publikoan gure hirian egiten diren bazkari herrikoiak, auzo, kultur, bizilagun zein guraso elkarteek sustatuta, gutxi batzuk baino ez aipatzearren.

Gure hiria osatzen duten auzoetan egiten diren bazkari herrikoiak bertako nortasunari oso atxikita daude, komunitatetik sortu eta antolatzen diren ekintzak dira, sarea indartzen dute eta auzoak bizigarriagoak egiten dituzte. Sozializatorako ezinbesteko tresna izateaz gainera, kohesioan sakontzen laguntzen dute eta parte hartzea, auzolana eta identitatea bezalako baloreak indartzen dituzte.

Horiek horrela, honako hau da behean sinatzen duen zinegotziak aurkeztutako **KONTROL MOZIOA**:

1. Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari bertan behera utz dezala hartutako erabakia -hau da “2024tik aurrera ez dira Udal festa egutegiaz kanpo dauden bazkari popularrak bide publikoan baimenduko” erabakia- eta orain arte egin den moduan,

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

2024tik aurrera ere, dagozkion baimen guztiak betetzen dituzten udal festa egutegiaz kanpoko bazkari popularrak baimendu ditzala gune publikoan.

Donostian, 2023ko uztailaren 20an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH BILDU udal taldeko zinegotzia